

IRAGARKIA

48. ALDIZKARIA - 2004ko apirilaren 21a

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK

ITURMENDI

Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu berezien tasa arautzen duen ordenantza fiskala. Behin betiko onspena

Iturmendiko Udalak, 2003ko azaroaren 25ean egin osoko bilkuran, bertaratu guztiak ados egonik, hasiera batez onetsi zuen Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu berezien tasa arautzen duen ordenantza fiskala. Iragarkia 2004ko 6. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urtarrilaren 14an. Jendaurreko epea iraganik, eta Udalak berak 2004ko otsailaren 17ko osoko bilkuran aldaketa bat egin ondoren, 2004ko martxoaren 2ko osoko bilkuran behin betikoz onetsi da aho batez, eta osorik Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea erabaki da.

Iturmendin, 2004ko martxoaren 2an. _Alkatea, Julen Galarza Otxoa.

ORDENANTZA, EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO ZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEKO APROBETXAMENDU BEREZIEN TASAK ARAUTZEN DITUENA

1. artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 122. artikuluan, urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduko 93. artikuluan eta hurrengoetan eta 4/1999 Foru Legeak aldatzen duen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legeko 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau.

2. artikulua. Eremu publikoko eta herrilurretako zoruan, hegalkinean eta zorupean ondoko aprobetxamendu edo erabilera pribatiboetarik edozein egitea da zergagaita:

a) Erabilera publikoko lurren zorupea okupatzea.

b) Erabilera publikoko lurrak salgai, material edo gisako muntaduren bidez okupatzea.

c) Soto edo sotoarteei argia, aireztapena, pertsonen sarbidea edo gaien sarrera eman ahal izateko eremu publikoko zoladura edo espaloietan kokatutako lukana, arnasbide, ate, karga-aho edo

gisako elementuak, bai eta argi-sare publikotik egindako hartunea ere.

d) Eremu publikoaren gainean dauden edo fatxadaren lerrotik ateratzen diren markesina, olana edo gisako instalazioak, eraikinaren berezko egituraren elementuak ez direnean.

e) Eremu publikoaren gainean edo haren hegalkinean kokatuta dauden burni-barra, aldamio eta gisakoak, kableak, horma-besoak, lotura, banaketa edo erregistrorako kaxak, baskulak, salmenta automatikorako tresnak eta gisakoak.

f) Irabazteko xedearekin mahaiak eta kadirak paratuz erabilera publikoko lurak okupatzea.

g) Eremu publikoan kioskoak paratzea.

h) Erabilera publikoko lurretan kokatutako postu, barraka, saltoki, ikuskizun eta jolaskizunak, kalez kaleko industriak eta zinema filmaketa.

i) Erakusleiho eta beirarasak.

j) Balkoiak eta terrazak kristalez ixtea.

3. artikulua. Ondoko hauek daude beharturik ordenantza honetan ezarritako tasak ordaintzera:

a) Udal lizentzien edo kontzesioen titularrak eta aprobetxamenduaren mozkinak jasotzen dituzten pertsona natural edo juridikoak.

b) Lizentzia edo kontzesiorik gabe, ordenantza honen xede diren aprobetxamenduak jasotzen dituztenak.

c) Aprobetxamenduaz gehiago baliatu gabe toki entitatean haren baja aurkezten ez dutenak.

d) Eremu publikoan ezartzen diren edukiontzien kasuan, lizentziaren titularrak edo aprobetxamenduaz baliatzen direnak. Zergaduntzat edukiontzien jabeak eta etxegileak hartuko dira.

4. artikulua. Ordenantza honetako tasen zenbatekoa finkatzeko, aprobetxamenduaren iraupena eta ordenantza honetako xede diren aprobetxamendu bereziek okupatutako eremu publikoaren azalera hartuko dira kontuan, eranskinean xedatzen denari jarraikiz.

5. artikulua. Toki mailako zerbitzu publikoak ematen dituzten enpresak salbuetsirik egonen dira tasen ordainarazpenetik.

6. artikulua. 1. Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak udal ondasun edo instalazioen suntsiketa edo narriadura ekartzen badute, onuraduna aipatu horiek berreraiki edo konpontzeko gastuen kostu osoa ordaintzera beharturik dago, dagokion prezio publikoa ordaindu beharra ukatu gabe, baita aurretik zenbateko hori gordailutako uztera ere.

2. Kalteak konponezinak badira, desegindako gaiek zenbat balio duten edo kaltetutakoen baliogalera norainokoa den, horrenbeste emanen zaio ordainetan Udalari.

Toki entitateak ez ditu inolaz ere barkatuko artikulu honek aipatzen dituen kalte-ordainak eta diru itzulerak.

7. artikulua. Tasa ordaindu beharra aprobetxamendua onartzen denean sortzen da, edo aprobetxamendua hasten denetik, baimenik gabe hasi bada.

8. artikulua. Udalak behar den lizentziarik edo kontzesiorik eman gabe aprobetxamendua hasten bada, behar den tasa pagatzeak ez ditu egindako aprobetxamenduak legeztatuko eta, beraz, kalte-ordainik eman gabe instalazioak kentzeko agindu daiteke.

9. artikulua. 1. Ordenantza honetan araututako tasei lotutako aprobetxamenduak behar den errolda edo zentsua izanen dute ohikoak eta etengabeak badira.

2. Erabilera publikoko lurrak, irabazteko asmoz, mahai eta kadirekin okupatzeari dagokionez, toki entitateak baimena bere osotasunean balio gabe utzi edo aldi baterako ken dezake arrazoi bidezko, obra, konponketa, etabarrik badago, eta kobratutako tasaren zati proportzionala itzultzera behartuta dago.

3. Balkoiak edo terrazak kristalen bidez ixteari dagokion tasa lizentzia ematen den momentuan ordainduko da.

10. artikulua. 1. Iruzurtzat hartuko da behar den lizentziarik gabe aprobetxamendua edo erabilera hastea.

2. Bertzelako instalazioei dagokienez eta zehapenekin ikusteko duten afera orotan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean xedatutakoari jarraituko zaio. Toki entitateak, agindu bidez, lizentzia edo baimenik gabeko muntadurak eremu publikotik ken ditzake udal biltegietara eramateko, eta muntadura hori desmuntatu, biltegiara eraman eta egin behar den beste edozergatik sortutako gastuak jabearen kargu geldituko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa._Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta berori aldatzen duen 4/1999 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena._Ordenantza honek oso-osorik Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren hartuko du indarra eta izanen ditu ondorio juridikoak, toki entitateen egintza edo erabakiak, Estatuko edo Foru Komunitateko Administrazioek indargabetzeko duten eskumena erabiltzeko epea iragandakoan.

EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO ZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEKO APROBETXAMENDU BEREZIEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZARI DAGOKION ZENBATEKOEN ERANSKINA

I. epigrafea. Aprobetxamendu bereziak zoru gainean.

I.1. Mahaiak, kadirak, mahaitxoak, metro karratu edo zatiki bakoitzetik: 3 euro/denboraldia.

I.2. Merkatu txikiak, sei metro lineal edo zatiki bakoitzeko:

A) Sei metro lineal edo zatiki bakoitzeko.

Elikagai, arropa eta oinetakoen salmenta:

Egunean: 4,5. Denboraldia/3 hilabete: 45.

_Eskulan, liburu, numismatika eta kulturakotzat hartzen diren bertze gai batzuen salmenta.

Egunean: 3. Denboraldia/3 hilabete: 30.

B) Sei metrotik gorako saltokiak: 7 euro metro lineal edo zatiki bakoitzeko.

C) Hiru metrotik beherako saltokiak.

_Eskulan tikiak, bisuteria eta bertzelako produktu baimenduak, toki bakoitzeko: 3 euro metro lineal edo zatiki bakoitzeko.

Zenbateko hauek hasierako prezioztat hartu dira. Esleipena enkante bidez izan balitz. Zenbateko horiek %100 igo ahal dira festak direla eta.

Festetan jartzen diren barrakak: 20 euro/festak.

I.3. Bertzelako aprobetxamenduak, metro karratu edo zatiki bakoitzeko.

_Egunean: 0,5 euro.

_Hilabetean: 10 euro.

_Urtean: 100 euro.

I.4. Garabia paratzea: 50 euro lizentzian zehazten den aldian edo, halakorik ezean, 6 hilabetean. Hortik gorako egunetan, 5 euro/eguna, eta bestelako zehapenak ezartzeko aukera.

I.5. Aldamioak: aitzineko epigrafean agertutako zenbatekoen %50.

Urbanizatzen ari diren eremuetan, zenbatekoak %75 beheratuko dira.

I.6. Karabana, atoi eta automobilak ez diren gainerako ibilgailuak, bereziki baimentzen direnean, tasa ordaintzeak baimena dagoela erran nahi ez badu ere. Egunean edo egun zati bakoitzetik: 3 euro.

I.7. Ibilgailu-tabernak:

Zenbateko hau kobratuko da instalaziorako tokia ez bada enkante bidez esleitu.

II. epigrafea. Aprobetxamendu bereziak hegalkinean.

II.1. Balkoiak eta terrazak ixtea.

Eraikitako metro bakoitzeko: 20 euro.

II.2. Bestelako aprobetxamenduak.

_Metro karratu edo zatiki bakoitzagatik, egunean: 0,25 euro.

_Metro karratu edo zatiki bakoitzagatik, hilabetean: 7 euro.

_Metro karratu edo zatiki bakoitzagatik, urtean: 35 euro.

III. epigrafea. Aprobetxamendu bereziak zorupean.

_Ezarritako biltontzi bakoitzeko, urtean: 50 euro.

_Sare nagusien instalazio eta aprobetxamenduengatik (gasa, argia eta uraren hornidura eta saneamendua) izanen den gutxieneko kuotari dagokionez, metro lineal bakoitzeko, urtean, Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean ezarritakoari jarraituko zaio.

_Gainerako aprobetxamenduak, metro karratu edo zatiki bakoitzeko:

_Egunean: 0,25 euro.

_Hilabetean: 3 euro.

_Urtean: 25 euro.

IV. epigrafea. Gutxieneko eskubideak.

Aurreko epigrafeek bildutakoaren truke ordaindu beharreko zenbatekoak jarraian zehazten diren gutxieneko zenbatekoetara iristen ez direnean, ondokoak ordainduko dira:

_Aldamioak: 25 euro.

_Hesiturak: 20 euro.

Nolanahi ere, bide publikoaren okupazioa egiten denean ibilgailuendako trafikoa moztu behar bada, okupazioari dagozkion tasak %100 igoko dira.

Iragarkiaren kodea: L0403933